

PROZESUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Partaidetza-prozesua, Uharteko udalerrian aurrekontu parte-hartzaileak gauzatzeko eta denboran zehar iraunarazteko behar den egitura abian jartzeko, bai eta egungo ekitaldiko aurrekontu parte-hartzaileei lotutako prozesuari buruzko dinamizazioa eta komunikazioa egiteko ere.

- **Helburu Zehatzak**

- Uharteko udalerriari egitura sendo eta iraunkorra ematea, aurrekontu parte-hartzaileak gauzatu eta lortu ahal izateko.
- Herritarren parte-hartzea sustatzea Uharten, udal aurrekontu parte-hartzaileei dagokienez.
- Uharteko biztanleak gaitzea, aurrekontu parte-hartzaileak gauzatzeko behar diren mekanismoak abian jar ditzaten.
- Herritarrekin Talde Eragile bat sortzea, egungo prozesua abian jartzeko eta ondorengo jarraipena egiteko.

Helburu horiek lortzen parte hartzen duten **ERAGILEAK** honako hauek dira:

- **Uharteko Udala:** Prozesuaren sustatzailea, haren mugak ezartzen ditu eta jarraipen-batzordean parte hartzen du.
- **Herritarrak, komertzioak eta entitateak:** Parte-hartze tailerretan, proiektuen aurkezpenean eta bozketetan parte hartzera gonbidatuak.
- **Talde Eragilea, herritar interesatuek osatua:** Laguntza teknikoa gainbegiratuta lagunduko du prozesua, eta denboran iraungo duela bermatuko du.
- **Jarraipen Batzordea:** Prozesua gainbegiratu eta ebaluatzen du.
- **Talde teknikoa.**
 - **Artelan:** Prozesu parte-hartzailea zuzentzen eta koordinatzen du. Prozesuaren diseinu metodologikoa: parte-hartze soziala eta herritarren ahalduntzea. Material teknikoa eta komunikazio-edukia diseinatzea.
 - **Aidoua:** Uharteko Aurrekontu Parte-hartzaileen diseinu grafikoa.

Helburu horiek lortzeko **LAN-ILDO** nagusiak honako hauek dira:

- **Herritarren parte-hartzea**
 - Talde Eragilea sortzea.
 - Herritarren parte-hartzea dinamizatzea eta sustatzea prozesuan zehar.
 - Prozesua haurren parte-hartzeari irekitzea.
- **Koordinazio tekniko - politikoa**
 - Jarraipen Batzordea.
- **Komunikazioa/Zabalkundea/Ikusgarritasuna**
- **Proiektuak aurkezteko sarbidea erraztea eta bateratzea**
 - Material teknikoa.

Hemen deskribatutako prozesua 2021eko apirila eta urria bitartean gauzatuko da, eta honela geratuko da denboran zehar:

- 0 Fasea. Prozesu parte-hartzailearen diseinua eta zehaztapena. **MAIATZA - EKAINA**
- 1. Fasea. Sentsibilizazioa, informazioa eta Talde Eragilea sortzea. **UZTAILA**
- 2. Fasea. Parte-hartze prozesua. **ABUZTUA - IRAILA**
- 3. Fasea. Parte-hartze prozesuaren itxiera: Aurrekontu parte-hartzaileen bozka.
URRIA
- 4. Fasea. Itzulketa eta prozesuaren zabalkundea. **AZAROA**

Data garrantzitsuak

- Aurkezpen publikoa. Uztailaren 23a.
- Tailerrak eta deribak:
 - Informazio bilera. Abuztuaren 25a.
 - Haurrentzako tailerrak. Abuztuaren 26a.
 - Deriba edo transektoa. Irailaren 1a.
- Proiektuak aurkezteko data. Irailaren 15etik 25era.
- Bozkarako data. Irailaren 26tik urriaren 10era.
- Itzulketa publikoa. Zehazteke.